

BALOREZKO PROPOSAMENA

“R3DESIGN YOUR WORLD”en etorkizunerako ikuspegia dugu eta horregatik 3D inpresoren munduan sartzea oso ideia ona iruditu zaigu. “La importancia de la impresión de objetos reales es cómo benefician al mundo” dio Abby Arriagak, inpresoren munduan aditua. Izan ere, bizitza errazteko baliabide ikaragarria da, oraindik asko erabili ez dena.

Egia esan zenbait aspektuetan, medikuntzan esaterako, aurrerakuntza ikaragarriak eman dira baliabide honi esker. Inpresora hauetaz baliatuz, medikuek, gure gorputzean dauden hezurak zein beste atal sortzeko gai dira, hala nola, protesiak egiteko. Gainera, nahiz eta oso erabilera sinplea iruditu, jostailuak egiteko oso erabiliak izan dira azken urteotan. Izan ere, aukera ikaragarriak eskeintzen dizkigute edozein kolore eta formakoak. Horretaz gain, ikastetxe zein beste erakunde ezberdinetan zabaldu ditzakeguz. Horrexegatik erabaki dugu 3D inpresoren munduan sartzea. Etorkizunera begira oso aukera ona delako eta seguruenik sortuko den baina jada sortu bidean doan beharizan bat asetzen lehenengo enpresa izatea nahi dugulako.

Argi dugu gure enpresaren misioa ez dela produktu edo zerbitzu bat soilik merkatuan kokatzea, gure bezeroei esperientzia bat eskaintzea baizik. “R3DESIGN YOUR WORLD”ek soluzio integral bat eskaintzen du, hau da, produktu konkretu batetatik, bezero bakoitzari bereziki pentsatutako salmenta prozesu pertsonalizatu bat sortzen dugu. Badaude enpresak inpresoren munduan lan egiten dutenak baina ez dutenak inolako zerbitzurik eskeintzen guk ematen dugunaren bezelakoa. Guk lehen aipatu dugun bezela, soluzio integral bat eskaintzen dugu; Lehendabizi inpresorak saltzen ditugu eta ondoren inpresora horrerik etekin maximoa ateratzen erakusten diogu bezeroari azalpen eta erakusketen bidez. Horretaz gain, zerbitzu post-salmentak eskainiko ditugu eta arazo teknikoren bat izanez gero, segiduan konpontzeaz arduratuko gara. Gure produktuak erosteko, online denda bat sortuko dugu eta horrela askoz ere erosoagoa suertatuko zaio bezeroari gure produktuak erostea.

R3DESING YOUR WORLD

3D inprimagailuen artikulua: _

<http://www.cnnexpansion.com/opinion/2013/06/05/impresion-en-3d-a-redisenar-el-mund>

[o](#)

Gainera, gure inpresorak kalitate onekoak izango dira eta prezio aldetik ez dira garestiak izango. Izan ere, hainbat diru iturritatik lortuko dugulako etekina, baina hau aurrerago azalduko dugu. Hainbat foroetan irakurri dugunez, bezeroek ikusten duten desanbantailarik ugariena, inpresoren prezioa izango litzateke. Oso garestia da gaur egun eta gure enpresak, inpresorei buruz dagoen irudi garesti hori ezabatzen ahaleginduko da.

Denok dakigun bezela, teknologiaren munduan, denbora gutxian prezioak ikaragarri aldatzen dute. Aurten ateratako ordenadore baten prezioa asko murriztuko da bi urte geroago. Horrela funtzionatzen duela teknologiak gaur egun. Izan ere, egunero aurrerapen ikaragarriak sortzen direlako eta gaur oso modernoa eta berriztagarria dena, bihar zaharkituta geldituko delako. Beraz aldaketa horri aurre egiteko prest gaude, eta merkatuak egunero exigitzen dituen berrikuntzei eta aldaketei moldatzeko prest gaude. Beraz honekin hasteko, inpresorek dituzten prezio altuak saiesten lehenengo enpresa izango gara. Hau egiteko, lehendabizi inpresora bat erosiko dugu, eta inpresora hau abiapuntutzat hartuz, beste inpresorak sortzeko piezak sortuko ditugu. Horrela guk sortutako inpresorak salduko ditugu eta ahalik eta prezio kompetitiboenean. Azken finean, inpresora bakoitzaren kostua, bertan erabilitako materialaren balioa besterik ez delako izango beraz sekulako etekinak sortuko ditugu.

Gure inpresora, Prusa i3 modelo² izango da. Modelo hau aukeratu dugu, alde batetik prestazio optimoak dituelako eta gainera prezio on batean. Hasiera batean, hitzaldiak emango ditugu Euskal Herriko ikastetxe zein enpresetan, 3D inpresoren garrantziaz informatzeko. Gainera, tallertxoak ere antolatuko ditugu, 3D inpresorekin lan egiteko guneak izango direnak.

R3DESING YOUR WORLD

Tailertxo horiek, nahiko interaktiboak izaten ahaleginduko gara, modu praktiko batean ikas dezaten. Izan ere, tailertxo hauetan, piezak sortzeko aukerak eskainiko ditugu. Horrekin batera, kanpaina ugari sortuko ditugu. Adibidez, kanpaina bat izan daiteke, Bizkaiko ikastetxe bakoitzak, 3D inpresoraren bat izatea euren tailerretan. Horrela, umeez txikitatik ikusteko 3D inpresorek eskaintzen dituzten aukerak eta erreztasunak. Azken finean, gure enpresaren helburua, bezeroei bizitza erraztea delako.

Beste kanpainaren bat izan daiteke, Euskal Herrian zein Espainian, teknologia munduan sortzen diren lehiaketak eta konferentziak patrozinatzea. Gune horiek izan daitezkeelako, "R3DESIGN YOUR WORLD" enpresa ezagutzera emateko aukera apartak.

3D inprimagailuaren modeloa: _

http://www.bq.com/es/prusa?gclid=CjwKEAiA18mzBRCo1e_-y_KLpXISJACEsANGSFRUuIDx4ZX7eO_x0rm5dfY_9zWZQwZxkqo2vPrUJBoCYrDw_wcB

Hurrengo aspektua ere, ideia honekin zerikusia zuzena du. Interneten, foroak sortuko ditugu eta bertan inpresoraren erabiltzaileek sortzen dituzten diseinuak publikatzeko aukera izango dute. Era horretan, inpresoraren erabiltzaileek besteek sortutako piezak ikusiko dituzte eta gure produktua hedatuz joango da. Honekin batera, lehiaketak ere sortuko ditugu eta hainbat sari banatuko ditugu. Azken finean, guzti honen helburua, bezero guztien artean komunitate antzeko bat sortzea izango litzateke. Guk ere, beste motatako pieza ezberdinak sortzeko aukera emango diegu bezeroei tutorial erraz batzuen bitartez. Beraz, era horretan, gure bezeroek nahi beste pieza ezberdin sortzeko aukera izango dute.

R3DESING YOUR WORLD

Gainera, lehen aipatu dudan bezela, denda bat sortuko dugu. Bertan, inpresorak saltzeaz gain, inpresoren errekanbioak ere salduko ditugu, hala nola piezak sortzeko materiala (plastikoa). Honen helburua, gure bezeroek guri erosten digutela zihurtatzea da eta ez gure konpetentziari. Hau bermatzeko, hainbat ideia sortu ditugu, promozioak sortzea esaterako; errekanbio bat erosiz gero, hurrengo errekanbioan %x -ekobeherapena egingo dugu.

Edota errekanbio bat erosiz gero, zozketa batean sartzeko aukera izango du bezeroak eta bertan adibidez, 3D inpresora bat zozketatuko dugu. Guzti hau (portzentaiak zein sariak) oraindik adostu behar ditugu.

Izan ere, sekulako aukerak eskaintzen diegu bezeroei, hala nola, eurek euren 3D inpresorarako pieza berriak sortzeko aukera eta horrela 3D inpresoren mundua hedatzen dela bermatuko dugu. Gainera, inpresorak hezkuntza arloan inplementatzea oso aukera ona eta berriztatzailea dela iruditzen zaigu. Izan ere, mundu osoan oraindik ez baitira lurralde jakin bateko ikastetxe guztiak teknologia honetaz baliatu. Beraz hau egiten dauen lehenengo enpresa izango ginateke. Apostu honekin lortu nahi duguna, teknologia inplantazioan sinisten duten bezeroak topatzea da. Horrela, beraiekin batera, gure 3D inpresoren mundua hedatzen joateko eta guk eskaintzen dugun eta lehen aipatutako esperientzia hau sentitzeko.

Beraz aipatutako arrazoi guzti hauengatik uste dugu gure enpresa 3D inpresoren munduan besteen gainera nabarmenduko dela uste dugu. Alde batetik, punta-puntakoproduktuak saltzen ditugulako, Prusa i3 deituriko inpresora. Horretaz gain, bezeroek edozein momentutan jarri daitezke gurekin kontaktuan bai Internet bidez (korreoa, foroak...) zein telefonoz. Diseinuari dagokionez, oso diseinu berriztatzaile eta modernoa dute eta edozein aldaketa egin nahi izanez gero, erabiltzaileak berak egin ditzake aldaketa horiek. Prezio aldetik, lehen aipatu bezela, ez da inpresora garestia izango eta edozein arazo tekniko izanez gero, gure adituak saiatuko dira arazo hori ebazten. Hori gutxi balitz kontuan hartu behar ditugu sortuko ditugun tailerrak eta baita online denda. Edozein gauza nahi izanez gero bertan erosi ahal izateko inongo problemarik gabe.

